



ASTIGARRAGAKO EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

HELBURUA eta GAIA

Astigarragako Udalak 2021eko egutegia osatuko duten argazkiak hautatzeko lehiaketa antolatu du.

“Ura” da 2020ko lehiaketako gaia.

SARIAK

Irabazlea: argazkia 2021eko egutegiaren azalean agertuko da eta 150 €ko erosketa bonoa jasoko du.

12 finalista: argazki bakoitza egutegiaren hilabeteetako batean agertuko da eta egileari argazkiko 80 €ko erosketa bonoa emango zaio, baina gehienez ere 300 €koa.

Erosketa bonoa 2020ko abenduaren 31 baino lehen Astigarragan kokatutako denda, jatetxe, zerbitzu edo enpresaren batean erabiltzeko izango da.

BALDINTZA OROKORRAK

Partehartzaileak: lehiaketa edonori irekita dago, adin zein jatorri mugarik gabe.

Argazki kopurua: parte-hartzaile bakoitzak gehienez 5 aurkez ditzake.

Argazkiaren formatua: etzanak izan behar dute, JPG formatuan eta 5 Mb eta 8 Mb bitarteko pisuarekin eta DIN-A4 neurrirako.

Pen-drive batean Erribera kulturgunera ekarri edo astigarraga.kultura@gmail.com helbidera bidal liteke.

Lanak bidaltzeko mezu elektroniketan edo pen-drivean, egilearen hainbat datu adierazi behar dira, hala nola izen-abizenak, herria, telefono zenbakia eta adina, adin txikikoa izanez gero. Mezu elektronikoa jaso izanaren baieztapena bidaliko da, hura jaso dela frogatzearren.

Epaimahaia: Kultura batzordeko kideek egingo dute argazkien aukera argazkilaritzan aditua den norbaitekin batera.

Epaimahaiak 13 argazki aukeratuko ditu, lehena azalean eta besteak hilabete bakoitzarekin bana argitaratuko direnak.

Epaimahaiak argazkien kalitatea, originaltasuna eta gai aniztasunaren arabera



Erribera kulturunea

egingo du aukera.

Argazki lehiaketan parte hartzeak oinarrietako baldintzak bere horretan onartzea dakar. Oinarriotan jaso gabeko gorabehera oro antolatzaileek erabakiko dute.

Lan guztien erabilera eta erreprodukzio eskubidea antolatzaileena izango da, baina argazkiaren ondoan beti egilearen izen-abizenak aipatuko dira.

Argibide gehiago izateko Astigarragako Erribera kulturgunearekin harremanetan jar liteke: 943 33.50.64

LEHIAKETAREN FASEAK

Argazkiak aurkezteko epea: urriaren 30.

Epaimahaiaren erabakia eta sariak banatzea: azaroaren 6

Argazkiak jasoko dituen 2021eko udal egutegia abenduaren 15etik aurrera Astigarragako udaletxean, Erribera kulturgunean eta Astiko merkatarien elkarteko bezeroen artean banatuko da.